

## **BALIABIDEAK**

Funtsezko baliabide hauek gure proiektua aurrera eramatea ahalbidetzen dute, gure balio proposamena bermatuz, diru-sarrerak edukiz, bezeroei iritsiaraziz eta haiekin harremanduz.

Lehenik eta behin, gure enpresaren funtsezko baliabideak garatzeko, baliabide fisikoak ezinbestekoak dira. Lehenik, ekipamendu teknologikoa, esaterako, ordenagailua, interneta eta software, gure webgunea aurrera eramateko, eguneroko berrikuntzak egin ahal izateko eta gure bezeroekin harremanetan egoteko. Beste alde batetik, ekipamendu espezifikoak, enpresaren jardueren arabera egokituz, adibidez, makinak, tailerreko materiala, diseinu-tresnak... Gure liburua sortu ahal izateko [app.bookcreator.com](http://app.bookcreator.com) erabiliko dugu, doakoa da, beraz, ez da kostu bat izango guretzat.

Gure enpresak izango duen lokala ere funtsezkoa da. Kokapena eta tamaina egokia izan behar du lokalak, berezoengandik gertu edo arrakasta handia izango duen eremu batean, eta enpresaren egitura jasotzeko, bulegoak, biltegiak eta erakusketa edo tailerrak emateko eremu egoki bat.

Guzti honez gain, liburu bat izango dugu, eta fisikoki eta digitalki eskainiko diegu bezeroei. Informazioa bi formatuetan batuko dugu eskuragarri izateko, eta bakoitzaren beharrak asetzeko.